

**EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA**  
2018ko uztailaren 5a, osteguna

## **XEDAPEN OROKORRAK**

HEZKUNTZA SAILA

### **3495**

*93/2018 DEKRETUA, ekainaren 19koa, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuaren antolamendu, funtzionamendu eta autonomiari buruzkoa.*

#### **AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA**

Aldatzen da otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren 2. artikulua. Dekretu horren bitartez, prozedura arautzen da Hezkuntza arloan eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko. Aldaketaren ondorioz, artikulua hori horrela idatzita geldituko da:

“2. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza eskaintzen duten Hezkuntza arloan eskumena duen sailaren mendeko ikastetxe publiko guztietan aplikatuko da dekretu hau, honako ikastetxe hauek salbuetsita: Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua eta Lanbide Heziketako Ikastegi Bateratuak, hauek araudi espezifikoak izango baitute, eta Estatuko Erreferentziako Lanbide Heziketako Ikastegiak Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak eta lege hori garatzen duten eta oinarritzko arau izaera duten arauak aplikatzen diren alderdi espezifikotan”.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 19a.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntzako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.